


HERNANIKO KALEEI BURUZKO IKUSPEGI HISTORIKOA

Mertxe Arozamena Sagastibelza



"Hernani 1995" iazko aldizkarian, Hernanin dauden auzo, kale, parke, pasealeku eta plazak zerrendatu genituen, izen ofizialen arabera, hurrengo edizioetan hauei buruzko historia laburki bada ere azaltzeko. Asmo horrekin, Alde Zaharrean dauden kale batzuen deskribapena eginez hasi gara. Gogora ekarri behar da, oro har, hala izenak nola hauek idazteko erak, euskara hutsean, udal erabakietan agertzen diren bezala eman ditugula.

• ATZIETA KALEA •



Etxeetako zenbakien hurrenkerari jarraituz, kale honek Portale Txokon du hasiera eta Kardaberaz kalean bukaera.

Kale honetan egiten zen asteroko feria, ostegunetan nagusiki, eta animaliak, landareak eta nekazaritzako lanabesak saltzen ziren batipat, Atsegindegira eta gero Urbieta kalera berriki aldatu zen arte.

Kale honek, harresiaren atzealdean kokatua dagoena, kanpoaldean, duen jatorrizko izenak badirudi aintzinako ohitura bati jarraitzen diola. Horregatik, Diputazioak eskaturik Hernaniko Udalak 1896ko abenduaren 13ko erabakiaren arabera, kaleak elebidun jartzea bideratu zuenean, Atzieta eta gaztelerazko "Barrio de las Afueras" izena mantentzea erabaki zuen.

Erabaki hori 1927ko ekainaren 21ean aldatu zen eta orduan Foruen Plaza zenaren eta Urnietako errepidearen arteko kaleak, Udaltxearen alboan, Atzieta kaleko ekialdean, Percaiztegui kalea izena jaso zuen.

Azkenik, 1988ko martxoaren 29an egin zen Osoko Bilkurak, bere aintzinako jatorria

eta izen herrikoia kontuan izanik, kaleari eta zabalgunee berriari, lehen zuen izena, Atzieta kalea alegia, itzuli zion.

• ELKANO KALEA •

Portale Txokon hasi eta Antziola Auzoan du bukaera, Donostiara bidean, "Cuesta de la Muerte" delako aldapatik Karmelo Labaka kaleko bidegurutzean.

Juan Sebastian Elkano Getarian (Gipuzkoa) jaio zen, 1476an inguru?. Harek zeukan izpiritu saiatuak eta abenturazaleak eta itsasoko bizimoduarekiko zaletasun eta ezagupe-nak bultzaturik, Magallanesen espediziokoak



ziren bost untzietatik Concepción izenekoan, maisu postuarekin untziratu zen Moluka irletarako mendebaldeko pasabidea aurkitzearen. Untziak Sanlúcar de Barrameda herritik atera zen 1519ko irailaren 20an, eta Kanariar irlen eskala egin ondoren, Itsasarte aurkitzeko (gero Magallanes deitura hartuko zuena), Ozeano Barean zehar sartu zen, non, nabigazio gogorrean hilabeteak eman ondoren, Filipinetara iritsi baitzen 1521ean eta hauetako irla batean hil zen espedizioko burua.

Filipinetako artxipelago hainbat irlatan egon ondoren, espedizioa, bi untzi besterik ez zituela, iritsi zen azkenean Moluketara. Haue-
tariko bat, Trinidad izenekoa, Panamako ist-
mora zuzendu zen bitartean, bestea, Victoria,
Elkano buru zuela, Timor irlarantza abiatu zen
eta Esperantza Oneko lurmuturraz harantza,
hasierako lekura itzuli zen 1522ko irailaren
6an.

Munduari buelta eman zion lehen nabi-
gatzaile ospetsuari, Carlos V.ak harrera egin
eta honek 500 dukateko pentsioa eman zion
eta baita harmarria, "Primus circumdedisti
me" leloa zuela.

1525ean, bigarren buruzagiaren kargua
zuela, Loaysaren agintepean, Moluketara jo-
ango zen armadan sartu zen. Loaysa urtebete
geroago hil zenean, Elkanori utzi zion espedi-
zioaren agintea eta ardura, nahiz eta luzarora-
ko izan ez, 1526ko abuztuaren 4an, eskorbu-
tuak jota, Ozeano Bareko uretan hil baitzen.

Elkano Kaleari izen hori jartzea 1927ko
ekainaren 21ean erabaki zen, aurretik kale
honek zuen P. Kardaberaz izenaren orde-
z.

ITURRIAGA KALEA

Nafar kalean du hasiera eta bukaera be-
rriz, Urbieta kalean.

Agustin Ignacio M^a Iturriaga (Agustin Pas-
cual Iturriaga) Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen
1778ko urtarrilaren 31n. Andoaingo Apaizgai-
tegian eta Oñatiko Unibertsitatean ikasketak
burutu ondoren, apaiza ordenatu eta bere jaio-
terrira bidali zuten.

1817an, Hernanin eskola bat irekitzeko
baimena eskatu zion probintziako Diputazioari
eta hala fundatu zuen Cayetano bere anaiare-
kin eta Gipuzkoako garai horretako musikaririk

onenetarikoa zen Manuel Larrarterekin. Agus-
tini egokitu zitzaion gaztelerako, frantzierako
gramatika, latina eta kristau dotrina irakastea;
anaiak berriz, matematika eta geografia eman
zituen; eta hirugarrenari, lehen letrak, kantua
eta musika instrumentala. Pedagogo bikaina
izan zen, egungo irakaskuntza eraginkorrak ar-
duratzen zion eta bere eskolara Gipuzkoako
haurrak ezezik, urrutiko haurrak ere etortzen
ziren, batez ere Nafarroatik.

Irakaskuntza lanbidea izateaz gain, eus-
kal literatura landu zuen, alegiarari euskaldu-
nen artean onenetarikoa kontsideratua dago.
Bere idazlanen artean nabarmendu daitezke:
"Ipuiak"; "Arte de aprender a hablar la lengua
castellana para el uso de las escuelas de pri-
meras letras de Guipúzcoa"; "Diálogos basco-
castellanos para las escuelas de primeras le-



tras de Guipúzcoa"; "Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario basco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos".

Virgilioren bi egloga euskaratu zituen eta San Inazoren martxaren hitza idatzi zuen, baita Hernaniko Hilerriko Kaperara sartzeko ateko arku zorrotza inguratzen duen idazpenaren autoreak izan zen: "Laister esango da zuecga-tic esaten oi dana gugatik jill ciran!". Hernanin zendu zen, 1851ko martxoaren 30ean.

1932ko abuztuaren 7an, izen handiko seme honen oroimenez Hernanin ospatu zen "Euskal poesiaren festaren" egunean, marmol zuriko plaka bat inauguratu zen Kale Nagusiko 19.eko etxean, hantxe jaio baitzen. Honakoa idatzi zen plakan: "1932. P. Ituriaga'tar Agustin. Apaiz-olerkari ta irakasle'aren oroimenez. 1778 † 1851".

Udala Gestionatzeko Batzordea, 1948ko urtarrilaren 14an egin zuen ohiko bilkuran, aipatutako Kaleari bere izena ematea erabaki zuen.

• IZPIZUA KALEA •

Elkano kalean du hasiera eta bukaera Txirrita kalean.

Segundo Ispizua Bermeon (Bizkaia) jaio zen 1869ko ekainaren 2an. Haurra zela Ameriketara eraman zuten eta Perun eta Ekuadorren bizi izan zen. Gero, Costa Rican, "El Noticiero" lehen egunkaria fundatu eta horren jabea izan zen. Bilbora itzuliz, hango egunkarietarako lan egin zuen eta "Círculo Republicano Nacionalista Vasco", "Ateneo Científico-Literario" eta "Real Sociedad Geográfica" Elkarteetako bazkide izan zen, "Junta de Cultura Hispanoamericana" delakoan ere partaide izanik.



Historiagile gisa, hainbat aldizkaritan parte hartzeaz gain, honako idazlan hauen autore izan zen: "La guerra actual y las doctrinas del vasco Francisco de Vitoria", "Historia de los vascos en el descubrimiento, conquista y civilización de América", "La primera vuelta al mundo. IV Centenario: 1522-1922. Historia de la geografía y de la cosmografía en las Edades Antigua y Media con relación a los grandes descubrimientos marítimos realizados en los siglos XV y XVI por españoles y portugueses", "Historia de la Geografía y de la Cos-

mografia", etab. Madrilen hil zen 1924ko ekainaren 19an.

Kale honen izena 1927ko ekainaren 21ean erabaki zen.

• KALE NAGUSIA •

Gudarien Enparantzan hasi eta Zinko-eneatik aurrera Orkolaga kalean du bukaera.

Hernaniko kale zaharrenetarikoa da eta nagusia, ezagutzen duten bisitariek gorai-



13 HERNANI. — Antigua Casa en la Calle Mayor ND Fot

patua -hauetariko batzuek, beren kroniketan horrela jaso dute- dituen dorretxe ederrengatik (Aierdi eta Egin jauregiak, Beroitz- enea, etab). Kale honen barna, harmarri artistiko paregabeak ikus daitezke.

1896ko abenduaren 13an, Kale Nausiya-Calle Mayor elebidun idaztea erabaki zen, baina gerora, 1927ko ekainaren 21ean Alfonso XIII. kalea izena eman zitzaion.

1931ko apirilaren 22an, kale honek Nagusia izena berreskuratu zuen.

• KARDABERAZ KALEA •

Gudarien Enparantzan hasi eta Zinko-enean, Kale Nagusiarekin bat egiten duen lekuan bukatzen da.

Alde Zaharreko kalerik garrantzitsuenetarikoa da, bertan nabarmentzen dela ertaroko Portalondo etxea, "Torre de los Gentiles" ize-nez ere ezagutua.

Agustin de Kardaberaz Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen 1703ko abenduaren 28an. 10 urte zituela bere familia Donostiara bizitzera joan zen eta han jaso zuen lehen irakaspena Jesuiten ikastetxean; handik ikasketak zabaldu zituen, lehenik Iruñean eta gerora Valladoliden, eta azken hiri honetan zegoela, 1721ean Jesusen Konpainian sartu zen.

Apaiz ikasketak bukatu eta presbitero ordenatu zuten 1729an. Bilbora bidali zuten gramatika irakastera eta hiru urte beranduago Iruñeara filosofia irakasle gisa.

1735ean, osasun arazoak medio, Hernanin egon zen aldi labur batez eta Azkoitian eta Oñatin bizi eta gero, 1736an Loiolan (Azpeitia) geratu zen. Handik Euskal Herria osoa zeharkatu zuen predikatzen eta hain zen handia lor-

tu zuen ospea, santutzat hartzen baitzuten, eta elizak fededunez gainezka izaten zituenek, bere sermoiak plazetan eta kalean eman behar izaten zituen.

Jesusen Bihotzaren debozioaren sustaile aitzindaria izan zen. Horrez gain, euskal literatura landu zuen, euskaraz lan ugari idatzi zituen, batipat deboziozko liburuak, hedapen handia lortu zutenak, hala nola: "El Catecismo del P. Astete" euskarara itzuli zuen; "Cristavaren bicitza edo bicitza berria eguiteco bidea, bere amabi pausoaquin..."; "Eusqueraren berri onac: eta ondo escribetceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac"; "Aita S. Ig-

nacio Loyolacoaren Egercicioac, beren consideracio ta afectoaquin", etab, etab.

Carlos III.ak Jesusen Konpainia kanporatu zuenean, Italiara abiatu zen eta Castel San Giovanni herrira (Bologna) destinatu zuten. Hantxe hil zen 1770eko urriaren 18an.

1903ko abenduaren 28an, gogo handiz ospatu zen Hernanin bere jaiotegunaren bigarren mendeurrena.

Gorpuzkina Loiolako Santutegira ekarri zuten 1908an. Gorpuzkinaren zati bat, Hernaniko San Juan Bataiatzailea Elizan gordeta dago harez gero.

Kale honek lehen zuen izena, 1896ko abenduaren 13an hartutako akordioaren arabera, Andre Kalia - Calle Urumea zen. Baina beranduago, 1902ko ekainaren 5ean, plaka aldatzea erabaki zen eta Ur-me-calea - Calle de Urumea jarri zitzaion.

Udal Batzorde iraunkorrak, 1927ko ekainaren 21ean, aurreko izena aldatu eta kalea P. Kardaberaz izena hartu zuen, kale horretan, Cardaveraz-enea etxean (25. zk) jaio baitzen Hernaniko seme ospetsu hau. Honek ekarri zuen, jesuita famatuak aurretik zuen kalearen izena aldatzea, gaur egun Elkano kaletzat ezagutzen duguna.

• NAFAR KALEA •

Kale Nagusiaren eta Elkano kalearen artean dagoen tartea da.

Lehen "Dos de Junio" izena zuen kale honek, bigarren gerra karlistan, karlistek Herria setiatu eta bonbardatu ondoren, egun horretan altxa zen setioaren oroimenez hain zuzen, eta urtemuga guztietan ospatu egin ohi zen.

Izen aldaketa 1936ko urriaren 8an erabaki zen eta segituan alboko Probintzia jakinaren gainean jarri.



HERNANI - Calle Urumea. - LL.



Nafarroako foru Diputazioak eskerrak eman zituen, Hernaniko kale bati probintzia horretako izena emateagatik.

ORKOLAGA KALEA

Txirrita kalean hasi eta Kale Nagusian du bukaera.

Juan Miguel Orkolaga Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen 1863ko urriaren 13an. Haurra zela Argentinara joan zen eta hango hiriburua

den Buenos Airesen, apaizgaitegian sartu zen, urtebete eginez eta osasun arazoak zirela medio, etxera itzuli zen. 1880an Gasteizko apaizgaitegian sartu zen 1888ra arte, presbiteroa egin eta Beizama (Gipuzkoa) destinatu zuten arte. Han, astia zuenean, behaketa meteorologikoak egiten zituen. Hernani bere jaioterrira trasladatu zuten San Juan Bataiatzailea parroikiko apaiz laguntzaile gisa eta hemendik Zaurautzera, 1893an bikario izendatu baitzuten eta herri horretan hain zuzen, meteorologo gisa bere karrerari eman zion hasiera eta horretarako oinarrizko behatokia antolatu zuen.



1900. urteko azaroaren 15ean ekaitz handia iragarri zuen eta hondamendia saihesti horrela. Arrakasta honen ondoren, ekaitza iragarpenak publikoak egiten zituen eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek erabaki zuten euskal kostaldean behatoki bat instalatzea, lehen Zuzendaria bera izendatuz. Behatokia Igeldon kokatu zen behin-behingo 1901ean eta behin-betiko 1905ean, Gipuzkoako Diputazioaren esku bakarrik.

1909an Mexikora joan zen eta hango hiriburuan iragarpen meteorologikoak egin zituen. Hurrengo urtean itzuli zen.

"Sociedad Oceanográfica del Golfo de Gascuña (Bordele)" Elkarteko ohorezko bazkide izan zen eta hainbat zientzia elkarteko kide ere, esaterako, "Sociedad de Oceanografía de Guipúzcoa" Elkartekoa.

Neurketa aparatu batzuk ideiatu eta eraikitzeaz gain, hitzaldi ugari eman zituen eta hainbat argitalpen idatzi ere. Igeldon zendu zen, 1914ko irailaren 22ko arratsaldean.

Kaleari izena jartzearen erabakia Udala Gestionatzeko Batzordeak hartu zuen ohiko bilera 1954ko abenduaren 9an.

SAGARNA FELIPE KARRETA


Hernaniko aintzinako harresirako sarrerak Atzieta kalearen ondoan egiten duen ojiba-arkuaren eta Kale Nagusiaren artean luzatzen da.

Felipe Sagarna, "Felipe zapataria" edo "Zapa" izenez ezagutua bere lanbidea zela eta, Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen. Oso ezaguna zen, umore onekoa, izaera zabaladuna eta "Los Incansables" txarangako partaide zela ere. Izan ere, txarangak herriko jaiak ezezik, beste jai batzuk alaitzen zituen, Hernani-

koak, probintziakoak zein Euskadiko beste herri batzuetakoak.

1980ko apirilaren 19an, larunbata, goizaldean, Kardaberaz kaleko 34ko bere etxera sartzeraz zihoala hil egin zuten eta honela dioten plaka bat jarri zen bertan: "Zapa herria zurekin".

Udalbatzak ohiz kanpoko Osoko Bilkuran, 1980ko apirilaren 21ean izen hori jartzea erabaki zuen, 1981eko urriaren 28ko Osoko Bilkuran berretsia.



URBIETA KALEA

Kale Nagusian du hasiera, Plaza Berri ondoan eta Elkano kaleaz harantza luzatzen da, Marieluts izeneko urbanizazio berrira arte.

Juan de Urbietta Hernanin (Gipuzkoa) jaio zen, Ereñotzu Auzoko Abillats baserrian. Armagizona izan zen Hugo de Moncada jaunaren agindupean eta Frantziako erregea zen Francisco I.a 1525eko Paviako batailan preso har-

rreko zaldun izendatu zuen ere eta Kapitain maila eskuratu zuen, 1532. urteko beste pribilegio batengatik.

Hernanin hil zen 1553ko abuztuaren 23an eta bere gorpuzkina, Hernaniko San Juan Bataiatzailea eliz parrokiako horma batean zabaldutako nitxo batean gorde zen.

Independentziako Gerran hilobia soldadu frantsesek bortxatu zuten.

Gaur egun, parrokiako lurrean, presbiterioko oinean honakoa dago idatzita bere oroimenez: "Joannes de Urbietta (...-1553)".



tu zuen lehenetarikoa, agian lehena, aipatutako Errege horrek urte bereko martxoaren 4an idatzi zuen ziurtagiriaren arabera.

Italiako eta Napoliko gudueta zerbitzuak eskertuz, Carlos V. enperadoreak, har-marriaren pribilegioa eman zion Bolognetik 1530eko martxoaren 20an, berarentzat eta bere ondorengoentzat. Santiago orden milita-

Gainera, bere jaiotetxetik hurbil, monumentu txiki bat eraiki zen, honela dioen plaka bat duela: "Juan de Urbietta aprehensor de Francisco I Rey de Francia en la batalla de Pavia".

Etorbide berria egin behar zela eta, Udalak izen hori jartzea erabaki zuen 1905eko maiatzaren 31n.